

JUSTBPXPORT SL (“Sozietatea”) Administrazio Kontseiluak, BPXPORT taldea (“Taldea”) osatzen duten enpresa guztien sozietate nagusia den aldetik, gobernantza- eta iraunkortasun-sistema diseinatzeko, ebaluatzeko eta modu iraunkorren berrikusteko eskumena du, eta, zehazki, politika korporatiboak onartu eta eguneratzekoa, Sozietatearen jarduna arautzen duten jarraibideak jasotzen baitituzte.

Kapitalak zurtzeak garapen ekonomikoa geldiarazten du, demokrazia ahultzen du eta justizia sozialaren eta zuzenbidezko estatuaren kaltetan doa, ekonomiari eta gizarteari kalte larriak eraginez, eta kasu askotan delinkuentzia antolatuen eragiketak errazten ditu.

Taldeak, printzipio etikoekiko konpromiso sendoengatik erreferente bihurtua, bere gain hartzen du kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako erronkan aktiboki parte hartzeko erantzukizuna, bere jarduera-eremu guztietan.

Konpromiso horiek bere gain hartuz eta aipatutako erantzukizunak gauzatuz, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren aurkako politika (“Politika”) hau onartzen du, legearen eta Taldearen Estatutu Sozialen esparruan.

1 Helburua

Politika honek formalizatu eta islatu egiten du Taldeak kapitalen zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko duen konpromiso hautsiezina, eta, gainera, arlo horretan eskumena duten agintariekin lankidetzan aritzeko borondatea adierazten du.

Illo horretan, politikaren helburua da, gaiari buruzko nazioarteko estandarrekin bat etorriz, BPXPORT Taldea eta bere sozietate kideak kapitalak zurtzeko eta/edo terrorismoa finantzatzeko edozein eragiketa gauzatzeko erabili ahal izatea saihesteko irizpideak ezartzea.

Taldeak garatutako enpresa-jarduerak kontuan hartuta, politika honek, batik bat, (i) eskudiruzko kobrantzen eta ordaintzen mugetan eta (ii) negozio-bazkideen, hornitzaileen eta beste hirugarren batzuen identifikazioan eta analisisian izango ditu ondorioak.

2 Aplikazio-eremua

Politika hori zuzendaritza-taldeko kide guztiei eta Taldea osatzen duten gainerako erakundeetako profesionaleri aplikatuko zaie, bai eta Taldean sartuta ez dauden eta Sozietateak kontrol eraginkorra duen sozietate parte-hartzaileetako kide guztiei ere, legez ezarritako muga barruan.

Gainera, politika hori, dagokionean, *joint venture*-ei, aldi baterako enpresa-batasunei eta beste elkarte baliokide batzuei ere aplikatu dakieke, sozietateak kudeaketa bere gain hartzen duenean.

3 Kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren kontzeptua

Politika honen ondorioetarako, honako jardura hauek joko dira kapital-zuriketatzat:

- a. Ondasunak bihurtzea edo eskualdatzea, ondasun horiek delitu-jardura batetik edo delitu-jardura batean parte hartzetik datozela jakinda ere, ondasunen jatorri ez-zilegia ezkutatzeko edo estaltzeko, edo inplikatura dauden pertsonen beren egintzen ondorio juridikoak saihesten laguntzeko.
- b. Ondasunen gaineko ondasun edo eskubideen izaera, jatorria, kokapena, xedapena, mugimendua edo jabetza errealak ezkutatzeko edo estaltzeko, ondasun horiek delitu-jardura batetik edo delitu-jardura batean parte hartzetik datozela jakinda ere.
- c. Ondasunak eskuratzea, edukitzea edo erabiltzea, horiek jasotzen diren unean, delitu-jardura batetik edo delitu-jardura batean parte hartzetik datozela jakinda.
- d. Aurreko idatz-zatietan aipatutako jardueretaren batean parte hartzea, horrelako ekintzak egiteko elkartzea, ekintza horiek egiteko ahalegina egitea eta jardura horiek gauzatu laguntzeko, bultzatzeko edo aholkatzeko ekintza egitea.

Bestalde, politika honen ondorioetarako, terrorismoaren finantzaketatzat hartzen da funtsak edo ondasunak hornitzea, gordailutzea, banatzea edo biltzea, edozein bitartekoren bidez, zuzenean edo zeharka, horiek erabiltzeko asmoarekin edo terrorismo-delituetatik edozein egiteko osorik edo zati batean erabiliko direla jakinda.

4 Bete beharreko printzipioak

4.1 Kirol-zentroetan eskudirutan kobratzeko muga

Taldeak ez du eskudirutan kobratzerik onartzen bezeroekiko harremanetan. Salbuespenez hala eskatzen bada, aplikatu beharreko legeak jarraitu eta beteko dira.

Txikizkako bezeroen eskudiruzko kobrantzak onartu ahal izango dira, betiere lege ezarritako gehieneko muga gainditzen ez bada.

Taldeko kirol-instalazio bakoitzeko kutzako langileek arreta berezia jarri beharko dute bezero batek erosketen ordainketa zatikatuak identifikatzeko eta ez baimentzeko, hau da, banakako ordainketak ez baditu aurrez aipatutako mugak gainditzen, baina batera gainditzen baditu.

4.2 Eskudiruzko ordainketak mugatzea

Taldeak ez dio esku-dirutan ordaintzen hornitzaile, enplegatu, laguntzaile edo antzeko beste edozein laguntzailerari. Salbuespenez hala eskatzen bada, aplikatu beharreko legeak jarraitu eta beteko dira.

4.3 Negozio-bazkideen identifikazioa eta ezagutza

Taldeak bere hornitzaileak eta beste negozio-bazkide batzuk identifikatu eta ezagutuko ditu, aplikatzekoa den legeriak ezartzen dituen behar bezalako arretaz jokatzeko neurrien arabera. Ildo horretan, negozio-harremanak ezarri aurretik, Taldeak negozio-bazkidea eta haren benetako titularra identifikatuko ditu, eta egiaztatuko du ez dagoela nazioarteko zehapen-araubide baten mende merkataritza-harremanetan.

Beraz, Taldeak ezin izango du negozio-bazkide potentzialekin merkataritza-harremanik izan, baldin eta kapitalen zuriaketarekin eta/edo terrorismoaren finantzaketarekin zerikusia duten ziurtasun edo zantzu oinarridunak badaude.

Gainera, Taldeak bere negozio-bazkideekiko merkataritza-harremanen aldizkako jarraipena egingo du, harreman horiei buruz eskura dagoen informazioa eguneratuta dagoela egiaztatzeko.

Taldeak ez du negozio-harremanik ezarriko paragrafo honetan azaltzen diren behar bezalako arretaren neurriak aplikatu ezin dituenean.

5 Berrikuspena

Zuzendaritza Batzordeak aldian behin berrikusiko du politikaren edukia, eta une bakoitzean indarrean dauden gomendioak eta nazioarteko jardunbide onenak jasotzen dituela ziurtatuko du. Halaber, Administrazio Kontseiluari politikaren garapenean eta etengabeko hobekuntzan lagunduko duten aldaketak eta eguneratzeak proposatuko dizkio, Taldeko profesionalek egindako iradokizunak eta proposamenak aintzat hartuta, hala badagokio.